



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

KIMIKA ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS QUÍMICAS

Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco

Kimika Zientzien Fakultatea

Kimikako Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

“Rianodina (RyR1) kaltzio kanalaren erregulatzailerrien

"one-pot" sintesia”

Egilea: Endika Torres Urtizberea

Zuzendaria: Prof. Jesús M^a Aizpurua Iparraguirre

(Kimika Organikoa-I Saila)

Donostian, 2017-ko uztaila

GIPUZKOAKO CAMPUSA

CAMPUS DE GIPUZKOA

P^o. Manuel de Lardizabal, 3

20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

GIPUZKOA

Laburdurak eta akronimoak

Balk.	Baliokide
CBZ	Bentziloxikarbonilo taldea
CuAAC	Cu-accelerated azide-alkyne cycloaddition
δ	Desplazamendu kimikoa
d	Dobletea ($^1\text{H-NMR}$)
DBU	1,8-Diazabizikloundez-7-enoa
Dd	Doblete bikoitza ($^1\text{H-NMR}$)
DIPEA	N,N-Diisopropiletilamina
DMF	N,N-dimetilformamida
DMSO- d_6	Dimetilsulfoxido deuteratua
ES	Erretikulu Sarkoplasmatikoa
F.p.	Fusio puntua
h	Ordu
Hz	Hertzio ($^{13}\text{C-NMR}$)
IR	Infragorria (Infrared)
<i>J</i>	Akoplamendu konstantea ($^1\text{H-NMR}$)
m	Multipletea ($^1\text{H-NMR}$)
min	Minutu
Na Asc.	Sodio askorbatoa
Ppm	Milioiko zatiak (Parts-per-million)
PTSA	Azido p-toluensulfonikoa
NMR	Erresonantzia magnetiko nuklearra (Nuclear magnetic resonance)
RyR1	Rianodina-1 kaltzio errezeptorea

s	Singletea ($^1\text{H-NMR}$)
t	Tripletea ($^1\text{H-NMR}$)
T	Temperatura
TFA	Azido trifluoroazetikoa
THF	Tetrahidrofuranoa
TLC	Geruza meheko kromatografia (thin-layer chromatography)
UV	Ultramorea (ultraviolet)

Laburpena

Proiektuaren helburu orokorra, 1-karboximetil-1,2,3-triazolen lehen sintesian zeuden arazoak ez dituen, “one-pot” den, sintesi alternatiboaren garapena da. Hau, alkino-azida “click” erreakzioa du oinarri bezala. Beharrezko alkinoa aurretik prestatzen da, eta azida berriz “one-pot” eran.

Sintesi honen aldaketa handiena, “one-pot” prozedura izatearekin batera, saponifikazioa pausoa ekin dela da, horrela sintesi totala motzagoa eta merkeagoa, enantiopuroa bihurtuz. Horretarako α -aminoesterren ordez α -aminoazidoak erabiliko dira.

Honetaz aparte erreferentzia biologiko bezala erabiliko den ARM-210 izeneko konposatua eta 1-(2-N,N-Dimetilaminoetil)-1,2,3-triazol ezberdinak sintetizatuko dira.

ARM 210 konposatuaren sintesia honen patentea jarraituz egin da, molekula hau komertziala ez delako.

Hurrengo bi ataletan erabiliko diren heteroatomo desberdinak dituzten aril-alkinoak dagozkien tiofenoletik egin dira KOH eta propargil bromuroarekin erreakzionatuz. Erreakzioa H₂O/tolueno fase bikoitzean egin da Bu₄NI fase-transferentziako katalizatzailearekin eta fenoletatik egin dira K₂CO₃ eta propargil bromuroarekin erreakzionatuz. Kasu honetan disolbatzailea azetona izan da. Lortutako produktu puruak etekin handiz lortu dira (% 83-95).

1-(2-N,N-Dimetilaminoetil)-1,2,3-triazolak prestatzeko, aril-alkinoak azidoetanolarekin CuAAC (Cu-accelerated azide-alkyne cycloaddition) erreakzioaz Sharplessen metodoa erabiliz, disolbatzaile bezala Azetonitrilo/H₂O nahastea erabiliz eta katalizatzaile bezala CuOAc (%5 balt.). Lortutako alkohola, “one-pot” eran, mesilatu eta dimetil aminaz ordezkatzen da. Lortutako produktu puruak etekin handiz lortu dira (% 61-88).

1-karboximetil-1,2,3-triazolak “one-pot” eran sintetizatzeke, α -Aminoazidoen N-Azotazioa ematen da, gero hauen CuAAC “click” erreakzioa emateko Sharpless metodoa erabiliz, disolbatzaile bezala MeOH/H₂O eta katalizatzaile bezala CuOAc . Lortutako produktu puruak etekin handiz lortu dira (% 71-95).

Molekula berrien karakterizazioa IR, ¹H-NMR eta ¹³C-NMR teknika espektroskopikoak erabiliz burutu da.

Summary

The overall objective of the project is to solve the issues that previous synthesis of 1-carboxymethyl-1,2,3-triazol compounds had by proposing an alternative way and also making it “one-pot” compatible. This synthesis has alkyno-azide “click” reactions as base. For this, the needed alkyne is synthesized previously and the azide made *in situ* in the “one-pot” reaction.

The main change of these compound synthesis, besides the “one-pot” compatibility, is the suppression of the saponification, making with this a shorter, cheaper and enantiopure reaction. For that, α -aminoacids are used instead of α -aminoesters.

At the same time, different biological references are going to be synthesized: ARM-210 compound and different 1-(2-N,N-dimethylaminoethyl)-1,2,3- triazols.

The synthesis of ARM-210 compound was made following its patent due to it not being commercial.

The alkynes used are made with different aril-alkynes made from their respective tiofenol and reacting it with KOH and propargyl bromide. The reaction was made in a two-phase system of H₂O/toluene using Bu₄NI as a phase-transfer catalyser and from their respective phenol by reacting it with K₂CO₃ and propargyl bromide. The solvent used in this case is acetone. The products were obtained with high yields (% 83-95).

1-(2-N,N-Dimethylaminoethyl)-1,2,3-triazoles were formed by the CuAAC (Cu-Accelerated Azide-Alkyne Cycloaddition) reaction using Sharpless method in which acetonitrile/H₂O was used as solvent and CuOAc as catalyst. Pure products were obtained with high yields (% 71-95).

Characterization of the new molecules was made by IR, ¹H-NMR and ¹³C-NMR spectroscopic technics.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
1.1. Testuingurua.....	7
2. Problema, hipotesia eta helburuak	12
2.1. Problema	12
2.2. Hipotesia	13
2.3. Helburuak.....	14
3. Emaitzak eta diskusioa.....	17
3.1. ARM-210	17
3.2. 1,2,3-Triazol 1,4-diordezkatuen sintesia.	19
3.3. Ariltio-alkino eta ariloxi-alkinoen sintesia.....	21
3.4. 1-(2-N,N-Dimetilaminoetil)-1,2,3-triazolen sintesia.....	24
3.5. “One-pot” N-diazotazioa/CuAAC ziklazioa: 1-karboximetil-1,2,3-triazolen sintesia	27
4. Ondorioak.....	37
5. Esperimentala.....	39
5. 1. Metodo orokorrak.....	39
5.2. Prozedura sintetikoak	39
5.2.1. Aziden prestaketa.	39
5.2.2. Alkinoen prestaketa. Prozedura orokorrak.....	41
5.2.3 Azido triazolikoen prestaketa. Prozedura orokorrak	42
5.2.4. Amina triazolikoak. Prozedura orokorra.....	46
5.2.5. ARM-210 konposatua.	47
6. Eranskinak.....	50

1. Sarrera

1.1. Testuingurua

Distrofia muskularrak (MD) borondatezko mugimenduak egiteko erabiltzen diren eskeleto-muskuluen ahuldura eta degenerazioa sortzen duten mutazio espontaneoen ondorioak dira. MD muskuak ez diren beste organo batzuk ere afekta ditzakete, hala nola, bihotza, begiak edo garuna.

Gaur egun, MD arruntena “Duchenne-en Muskulu Distrofia” (DMD) izenekoa da¹. Honek 3.500-6.000 mutiletatik 1 afektatzen du urtero Estatu Batuetan². DMD-a, haurtzarotik antzematen da eta azkar gogortzen dira honen efektuak 12 urte inguruan umearen ibiltzeko gaitasuna galaraziz. Zenbait urte beranduago arnasa hartzeko gaitasuna afektatzen du. Hau dela eta, 25 urtekoa da DMD duten gaixoen bizi-itzaropena³. Gaixotasun honek ez du, gaur egun, tratamendu terapeutikorik⁴.

Eskeleto-muskuluak⁵ zuntzez osatuak daude⁶ eta hauek aldi berean muskulu zelulez (miozitoez). Miozito hauek nukleo ezberdinez aparte, miofibrilak izeneko egitura proteikoak dituzte barnean (**1. Irudia**). Egitura hauek aktina eta miosina filamentu tartekatuek osatzen dituzte eta hauek muskulu fibren funtzioen unitateak dira, muskuluen uzkurdura eragiten dutenak.

¹ For an updated Duchenne Muscular Dystrophy overview and current therapeutic approaches, see: a) <https://www.mda.org/disease/duchenne-muscular-dystrophy>. b) Rao, M. V.; Sindhav, G. M.; Mehta, J. *J. Ann. Indian Acad. Neur.* **2014**, *17*, 303. c) Mercuri, E.; Muntoni, F. *Lancet* **2013**, *381*, 845. d) Flanigan, K. M. *Semin. Neurol.* **2012**, *32*, 255. e) Bushby, K.; Finkel, R.; Birnkrant, D. J.; Case, L. E.; Clemens, P. R.; Cripe, L.; Kaul, A.; Kinnett, K.; McDonald, C.; Pandya, S.; Poysky, J.; Shapiro, F.; Tomezsko, J.; Constantini, C. *Lancet* **2010**, *9*, 77. f) Emery, A. E. *Lancet* **2002**, 359, 687.


² Monaco, A. P.; Neve, R. L.; Colletti-Feener, C.; Bertelson, C. J.; Kurnit, D. M.; Kunkel, L. M. *Nature* **1986**, *323*, 646.

³ a) Bushby, K. M.; Goodship, J. A.; Nicholson, L. V.; Johnson, M. A.; Haggerty, I. D.; GardnerMedwin, D. *euromusc. Disord.* **1993**, *3*, 57. b) Hoffman, E. P.; Arahata, K.; Minetti, C.; Bonilla, E.; Rowland, L. P. *Neurology* **1992**, *42*, 967. c) Richards, C. S.; Watkins, S. C.; Hoffman, E. P.; Schneider, N. R.; Milsark, I. W.; Katz, K. S.; Cook, J. D.; Kunkel, L. M.; Cortada, J. M. *Am. J. Hum. Genet.* **1990**, *46*, 672.

⁴ Fairclough, R. J.; Wood, M. J.; Davies, K. E. *Nat. Rev. Genet.* **2013**, *14*, 373


⁵ Birbrair, A.; Zhang, T.; Wang, Z.-M.; Messi, M. L.; Enikolopov, G. N.; Mintz, A.; Delbono, O. *Stem Cells Dev.* **2012**, *22*, 2298.

⁶ Zammit, P. S.; Partridge, T. A.; Yablonka-Reuveni, Z. *J. Histochem. Cytochem.* **2006**, *54*, 1177




1. Irudia. Eskeloto muskuluen eta miozitoen estructures (A). Miofibrilak sarkoleman zehar daude. (B) Sarkomeroak muskulua uzurdura unitateak dira. Hauen luzeera txikitzen da aktina/miosina interakzioa aktibatzean Ca^{2+} ioiak direla eta. (C) Miozitoaren barruko organuloen irudi eskematikoa.

Miozito osasuntsuaren uzurdura:



Duchenne (DMD) miozitoaren uzurdura:



2. Irudia. “Excitation-Contraction” (EC) prozesuaren konparaketa eskematikoa miozito osasuntsuan (goiko irudia) eta DMD duen miozitoan (beheko irudia). RyR1/Kalstabina1 en arteko interakzio okerrak (behean ezkerrean) RyR1 kaltzio kanalaren jarria eragiten du. Hau dela eta erlaxazio egoeran Ca^{2+} kontzentrazio handiegia dago sarkoplasman.

Aktina-miosina interakzioa ingurunekeo Ca^{2+} kontzentrazio aldaketa periodikoak modulatu du. Horrela, sarkoplasman Ca^{2+} kontzentrazio altua dagoenean aktina eta miosina tenkatu egiten dira muskuluen uzkurdua emanez. Kontzentrazioa baxua denean kontrako efektua lortzen da. Erlaxazio egoera honetan, soberako Ca^{2+} ioiak, miofibrilen inguruan dauden membrana konplexu tubularretan gordetzen dira. Hauei erretikulu sarkoplasmikoa (SR) esaten zaie.

Miozitoaren uzkurdua eta erlaxazioa “excitation contraction coupling” (EC) delako prozesua jarraituz ematen da (**2. Irudia**). Garunetik ateratzen den potentzial korrante batek miofibreren T-tubulu izeneko inbajinazioen azalean dauden Cav1.1 kaltzio kanalak aktibatzen ditu. Hauekin batera rianodina errezeptore izeneko kanalak (RyR1)⁷ irekitzen dira horrela lehen aipaturiko erretikulu sarkoplasmikoan gordeta zeuden Ca^{2+} ioiak askatuz, eta ondorioz muskuluen uzkurdua eraginez.

Behin kontrakzioa amaitu denean, Cav1.1 eta RyR1 kanalak itxi egiten dira eta sarkoplasmako Ca^{2+} erretikulo sarkoplasmikora berriz itzultzen da kaltzio kanal aktibo batez (Sarco-endoplasmatic reticulum Ca, edo SERCA), sarkoplasmako kaltzio kontzentrazioa jaisten denean, miozitoa erlaxatu (luzatu) egiten da⁸ eta hurrengo EC-rako prest geratzen da⁹.

DMD-a, distrofinaren galera dela eta sortzen da¹⁰. Proteina honek, aktina-miosina konplexua eta miozitoen mintza lotzen ditu, eta beraz hau gabe, muskuluen EC prozesua oso zaila bihurtzen da. Horretaz gain, distrofinaren galerak RyR1/Kalstabina-1 interakzioa ere ahuldu egiten du. Kalstabina-1 proteina RyR1 kanalaren modulatuzailea da, eta honi fisikoki lotua aurkitzen da.

RyR1/Kalstabina-1 interakzioa ahula denean (ikus **2. Irudia**), RyR1 kanala ezin da guztiz itxi, eta honekin, SRan kaltzio ioiaren jarria sortzen da. Erlaxazio egoeran dagoen miozito baten sarkoplasman behar baino Ca^{2+} kontzentrazio handiagoa dago. Honek, luzaroan, ondorio larriak ditu muskulu-zelulentzat (miozitoentzat). Hauek ezin dira ongi erlaxatu, etengabeko stress egoeran mantentzen dira eta, azkenean, apoptosiaren bidez hil egiten dira, DMD gaixoen muskulu-masa nabarmenki gutxituz.

Gaur egun, DMD-aren aurkako borrokan emaitza onenak izan dituen estrategia terapeutikoa, pisu molekular baxuko molekulak erabiliz Ca^{2+} ioien homeostasia berreskuratzean datza zehazki,


⁷ a) Witherspoon, J. W.; Meilleur, K. G. *Acta. Neuropathol. Commun.* **2016**, *4*, 121. b) Fill, M.; Copello, J. A. *Physiol. Rev.* **2002**, *82*, 893.

⁸ Saladin, K. S. *Anat. Physiol.* **2010**, *405*.

⁹ Hernandez-Ochoa, E. O.; Pratt, S. J. P.; Garcia-Pelagio, K. P.; Schneider, M. F.; Lovering, R. M. *Physiol. Rep.* **2015**, *3*, e12366.

¹⁰ Lapidus, K. A.; Kakkar, R.; McNally, E. M. *Circ. Res.* **2004**, *94*, 1023.

RyR1 kanalen estabilizadoreak diren molekulak erabiliz¹¹. Molekula horien artean, Arngo Pharma konpainia farmazeutikoak proposatutako ARM 210 konposatua aurkitzen da. Bentzotiazepina honek, RyR1/Kalstabina-1 interakzioa sendotu egiten du, rianodina kanalaren kaltzio ioiaren jarioa DMD miozitotan *in vivo* murriztuz¹². Zoritxarrez, bere toxikotasuna dela eta, ARM 210-ek ez du oraindik lortu FDA-ren baimena DMD gaixoeekin saio klinikoak egiteko.




EHUko Korta Zentruko *Sustainable Catalysis* ikertaldea eta BioDonostiako *Group of Neuromuscular Diseases* taldeen elkarlan zientifikoaren ondorioz “AHULKEN” izeneko konposatu familia berria prestatu da¹³. Hauek RyR1/Kalstabina-1 interakzioan eragin egonkortzailea dutela aurkitu da eta gainera, ez dira toxikoak. Aurkikuntza honen jatorria docking konputazional azterketa bat izan zen Autodock FR¹⁴ softwarea erabiliz. Lortutako emaitzak gero BioDonostian frogatuak izan ziren *in vitro* eta *in vivo* emaitza onak emanez (**3. Irudia**)

¹¹ Bellinger, A. M.; Reiken, S.; Carlson, C.; Mongillo, M.; Liu, X.; Rothman, L.; Matecki, S.; Lacampagne, A.; Marks, A. R. *Nat. Med.* **2009**, *15*, 325

¹² a) Kreko-Pierce, T.; Azpurua, J.; Mahoney, R. E.; Eaton, B. A. *J. Biol. Chem.* **2016**, *291*, 26045. b) Bellinger, A. M.; Reiken, S.; Dura, M.; Murphy, P. W.; Deng, S.-X.; Landry, D. W.; Nieman, D.; Lehnart, S. E.; Samaru, M.; LaCampagne, A.; Marks, A. R. *Proc. Natl. Acad. Sci. USA* **2008**, *105*, 2198

¹³ Aizpurua, J. M.; Irastorza, A.; Ferron, P.; Miranda, J. J.; Vallejo, A.; Lopez de Munain, A.J.; Toral, I.; Aldanondo, G. PCT/ES2017/070344. (Spanish Pat. ES/P1026/030670)

¹⁴ a) Ravindranath, P. A.; Forli, S.; Goodsell, D. S.; Olson, A. J.; Sanner, M. F. *PLOS Comput. Biol.* **2015**, *11*, e1004586. b) Zhao, Y.; Stoffler, D.; Sanner, M. *Bioinformatics* **2006**, *22*, 2768.





3. Irudia. RyR1/Kalstabina-1 konplexu tetrameroa. **(A)** goitik begiraturaz; **(B)** alde batetik begiraturaz; **(C)** konplexuaren monomero bat RyR1 (urdina)/Kalstabina-1 (morea). **(D)** A6 molekularen interakzioa RyR1/Kalstabina-1 konplexuarekin.

2. Problema, hipotesia eta helburuak

2.1. Problema

DMD gaixotasuna tratatzeko Joxe Mari Korta Zentroko *Sustainable Catalysis* taldeak presentatzen dituen AHULKEN molekula batzuk kiralak dira. **1.Eskema** D-fenilalaninaren metil esterrearen adibidearekin ikusten den bezala, orain arte 1-karboximetil-1,2,3-triazolen sintesia α -aminoesterretatik abiatuz egiten zen hiru urratseko N-diazotazio/CuAAC “click”/saponifikazio erreakzio sekuentzia jarraituz. α -Aminoester kiralak erabiltzerakoan sintesi-sekuentzia honek ez zuen arazorik ematen, baina, kiralen kasuan produktuen epimerizazio partziala gertatzen zela ikusi zen:




	RT	Area	% Area	Height	% Height
1	15.449	23827602	32.37	506557	35.38
2	17.424	49785997	67.63	925117	64.62

1. Eskema. D-Phe-OMe α -aminoesterretatik lortutako AHULKEN triazol karboxilikoa. Zutabe kiraleko HPLC analisiak adierazten du 1-(metoxikarbonimetil)-triazolaren saponifikazioan errazemizazio partziala gertatzen dela.

Irudian ikusten den bezala, lehengai bezala D-Phe-OMe purua erabili arren, azken produktua partzialki errazemizatutako triazol karboxilikoaren nahastea da sintesi bide hau erabilezina bihurtuz. Hau dela eta beste erreakziobide baten beharra dago molekula hauen enantiomero puruak lortzeko.

2.2. Hipotesia

Metil esterraren α posizioko protoiaren azidotasuna dela eta, saponifikazio pausoa epimerizazioaren zergatia izan daitekeela susmatzen da.



Hipotesi hau jarraituz, sintesiaren saponifikazio pausoa ekiditen badugu, epimerizazioa ez da gertatuko, horregatik zuzenean α -aminoazidoetatik abiatuz AHULKEN konposatuen sintesia egitea pentsatu genuen. Honekin batera, sintesi metodo berria “one-pot” eran burutzea planteatu genuen, horrela, urrats kimikoak bitara laburtuz.


Hau baieztatuko bagenu, AHULKEN 1-karboxilmetil-1,2,3-triazolen sintesi azkarragoa, enantiopurua, merkeagoa eta “one-pot” konpatiblea lortuko genuke, eta molekula hauen interes biologikoa dela eta, oso aurrerapen handia izango zen.

2.3. Helburuak

Nire helburu orokorra AHULKEN proiektuan BioDonostia institutoko saio biologikoak egiteko molekula berriak prestatzea izan ze. Lehenik, komertzialki ezin lor daiteken ARM 210 konposatua prestatu behar nuen, saio biologikotan erreferentzia bezala erabiltzeko. Ondoren, AHULKEN eraldatu berrien sintesia egin behar nuen, 1-karboximetil-1,2,3-triazolen ordez 1-(2-dimetilamino-etil)-1,2,3-triazolak prestatuz. Azkenik, AHULKEN molekula kiralak forma enantiopuroak prestatzeko “one-pot” prozedura berria garatu behar nuen.


2.2.1 ARM 210 en sintesia

ARM 210 konposatuaren sintesia ezaguna da. Horregatik, gure lana bibliografian deskribatutako prozedura errepikatzea izan zen eta azken produktuaren 100 mg baino gehiagoko lagina lortzea. Hori egiteko, jarraian erakusten den erretrosintesiaren arabeko sekuentzia jarraitu zen:




2.2.2 A1-(2-Dimetilaminoetil)-triazol berrien sintesia

Froga biologikoak burutzeko, beste molekula talde berri baten sintesi-proposamena ere egin genuen. Konkreteki, gure ustez, 1-(2-dimetilaminoetil)-triazolak bereziki interegarriak izango zirela uste genuen ingurune biologikoan konportamendu kationikoa izatea espero genuelako.



1-(2-Dimetilaminoetil)-triazolak

Sintesi berri hau ere, “one-pot” eran egitea proposatu genuen, hurrengo erretrosintesia jarraituz.



2.2.4 DMD eredu-animaliekin AHULKEN konposatu berrien saio biologikoak


Konposatu berriak BioDonoistia Institutura bidaliko dira *in vitro* RyR1/Kalstabina-1 interakzioaren modulazio-ahalmena neurtzeko. Gainera, *in vivo* toxizitatea eta muskulu-indarraren hobekuntza neurtuko dira Sapje-3 DMD zebra-arrainak erabiliz. Saio hauek Prof. Amer Anders-ek egingo ditu Suediako Karolinska Institutoan.

3. Emaitzak eta diskusioa

3.1. ARM-210

Aurrean esaten den bezala, gure lehen helburua ARM 210 konposatuaren sintesia izan zen, konposatu hau saio biologikoetan erreferentzia bezala erabiltzeko (**1.Eskema**). Jarraitutako prozedurak, Armgo Pharma-k patentatutakoak izan ziren¹⁵. Lehenik, 4-metoxitiofenolaren S-alkilazioa egin zen 2-kloroetilamina erabiliz 2-ariltio-etilamina **14** etekin handiz emateko. Ondoren, amina hau babestu egin zen bentzil kloroformiatoarekin (Cbz-Cl) ingurune basikoan era horrela **15** karbamatoa prestatu zen % 68ko etekinez. Produktu honen ziklazioa **16** bentzotiazepinara egiteko, formaldehidoa eta azido p-toluensulfonikoa erabili ziren. Segidan, Cbz taldea HBr anhidroarekin desbabestuz egin zen. Lortutako **17** tiazepina berriro N-alkilatu zen p-metoxikarbonilbentzil bromuroarekin **18** esterra emateko. Azkenik, metil esterraren saponifikazioz, ARM 210 konposatua lortu zen.


Sintesi hau patentatuadagoenez, espero bezala oso garbia eta etekin handikoa izan da.



2. Eskema. ARM 210 konposatuaren sintesia

¹⁵ Yan, J.; Belvedere, S.; Webb, Y.; Bertrand, M.; Villeneuve, N. *Patent* WO-2013156505 A1. 2013

Aurreko sintesi honen urras nagusia **15** karbamatoaren ziklazioa da **16** bentzotiazepina emateko. Erreakzio honen mekanismoa **3.Eskema** erakusten da. Lehendabizi, karbamatoaren nitrogenoak formaldehidoarekin erreakzionatzen du **A** iminio artekaria emateko. Ger, eraztun aromatikoko elektroiek iminioaren metilenoa erasotzen dute **B** Wheland-en artekaria emateko eta hau desprotonatuz, eraztun aromatikoa berreskuratzen da **16** bentzotiazepina bizikloa emanez.




3. Eskema. **15** karbamatoaren ziklazioa **16** bentzotiazepina emateko.

ARM 210 produktuaren 120 mg inguru lortu ondoren, lehen helburua lortutzat eman genuen.

3.2. 1,2,3-Triazol 1,4-diordezkatuen sintesia.

Meldal¹⁶ eta Sharpless¹⁷-ek deskribatutako moduan, triazol 1,4-diordezkatuak era erregioespezifikoan prestatzea erraza da, baldin eta jatorrizko alkino eta aziden arteko erreazioa Cu(I) konposatuekin katalizatzen bada. Erreakzio honi “Cu-accelerated azide-alkyne cycloaddition” (CuAAC) esaten zaio eta 10⁶ aldiz azkarragoa da erreakzio katalizatugabea baino. Aldaera esperimental asko daude produktu bera lortzeko. Horien artean ezagunena Sharpless-en metodoa da, non ingurune akuosoan sodio askorbatoarekin Cu(II) ioia erreduzitzen den eta honela Cu(I) katalizatzailea “in situ” eratzen den.



4. Eskema. 1,2,3-Triazol 1,4-diordezkatuen sintesia Cu(I)-ez katalizatutako alkino-azida erreakzioa (CuAAC), eta bere mekanismoa

Kasu gehienetan CuAAC erreakzio katalitikoa garbia da, etekin handiak ematen ditu eta abantailak erakusten ditu bere erreaktibitate ortogonal delako medio. Honek esan nahi du azidak eta alkinoak ez dutela ohizko funtzio-talde organikoekin erreakzionatzen (adibidez, CO₂H, NH₂, OH, etab.) eta, horrela, triazol funtzionalizatuak sintetizatu daitezkeela babespen-desbabespen

¹⁶ Tornøe, C. W.; Christensen, C.; Meldal, M. *J. Org. Chem.* **2002**, *67*, 3057.

¹⁷ Rostovtsev, V. V.; Green, L. G.; Fokin, V. V.; Sharpless, K. B. *Angew. Chem. Int. Ed.* **2002**, *41*, 2596.

urratsak erabili gabe. Hauen antzeko ezaugarriak dituzten beste erreakzio batzuk ere badaude, eta guztiei “click erreakzioak” esaten zaiem Sharpless-ek 2001-ean proposatu zuen hitza erabiliz¹⁸

CuAAC erreakzioaren mekanismoa ere **4.Eskeman** azaltzen da. Lehenik eta behin, Cu(I) katalizatzailea koordinatu egiten da alkinoaren π lotura hirukoitzean (**A**). Koordinazio honek handitu egiten du CH-aren azidotasuna ($pK_a \approx 25$ -tik ≈ 15 era jaitsi) eta honi esker Cu azetiluro σ -koordinatua sortzen da non alkinoa aktibatu egiten den (**B**). Hurrengo pausoan, Cu- π koordinatuak azida aktibatu egiten du nitrogenoaren elektroio pare askeekin (**C**). Modu honetan, azida eta azetiluroa ez daude kobre atomo berari lotuak. Berez, koordinazioa bai ordezkaturako nitrogenotik baita terminalatik eman daiteke, baina, eskeman adierazitako moduan erraztu egiten du adizio oxidatzailea (**D**). Nitrogeno ordezkaturako π -emailea da eta honek metalaren dentsitate elektronikoa handituko du. Ondorengo pausoan (**E**), eliminazio erreduktorea gertatzen da eta Cu (I) askatu egingo da modu exotermiko batean. Ingurune protiko batean, triazola libre geratuko da protonolisiagatik (**F**) eta Cu(I) berrerabili daiteke ziklo katalitikoan.^{19,20}

AHULKEN triazol ezberdinak prestatzeko, azpian azaltzen den lan-plana antolatu genuen. Atal honetako ondorengo sekziotan erreakzio horietako bakoitzean lortutako emaitzen deskribapena eta diskusioa egingo da:

- a) Ariltio-alkino eta ariloxi-alkinoen sintesia.
- b) 1-(2-N,N-Dimetilaminoetil)-1,2,3-triazolen sintesia
- c) 1-Karboximetil-1,2,3-triazol kiralen sintesia, “one-pot” CuAAC ziklazioa erabiliz.


¹⁸ Kolb, H.C.; Finn, M. G.; Sharpless, K. B. *Angew. Chem. Int. Ed.* **2001**, *40*, 2004

¹⁹ Kuang, G.-C.; Guha, P. M.; Brotherton, W. S.; Simmons, J. T.; Stanke, L. A.; Nguyen, B. T.; Clark, R. J.; Zhu, L. *J. Am. Chem. Soc.* **2011**, *133*, 13984.

²⁰ Meldal, M.; Tornøe, C. W. *Chem. Rev.* **2008**, *108*, 2952.

3.3. Ariltio-alkino eta ariloxi-alkinoen sintesia.


Gure bigarren helburua betetzeko, **10a-c** ariltio-alkinoak eta **10d-e** ariloxi-alkinoak prestatu genituen, zegozkien *m*- eta *p*- posiziotan ordezkaturako **19-21** tiofenoletatik edo **22-23** fenoletik abiatuta (ikus **5. Eskema**). Kasu guztietan erreakzioa errazteko konposatu fenolikoen nukleozaltetasuna handitu zen tiofenoxido edo fenoxido anioak base batekin sortuz bi baldintza ezberdinak erabiliz, tiofenolen kasuan **a**) eta fenolikoen kasuan **b**). Gainera, **a**) baldintzetan propargil bromuroak potasio hidoxidoarekin zuzenean ez erreakzionatzeko propargil alkohola emanaz, bi faseko disolbatzaile-sistema erabili zen (H₂O/toluenoa). Erreaktiboak fase likido nahastezinen artean mugitzeko tetrabutylamonio ioduroa (Bu₄NI), fase-transferentziako katalizatzailea erabili zen.




5. Eskema. Ariltio(oxi)alkinoen (**10a-e**) sintesia.

5. Eskema ikusten denez, base bezala KOH erabiliz, erreakzio-etekinak handiak dira eta gainera, konposatu puruak lortzen dira fase organikoa lurrundu ondoren, baino fenolen kasuan, nukleozaltetasun ezberdina dela eta, erreakzioa askoz motelagoa da, eta baldintza gogorragoak behar ditu tiofenolen etekin bera lortzeko.

Azpian erakusten diren 1. eta 2. Espektroen irudietan **11a** eta **11d** konposatuen ¹H-NMR espektroak konparatzen dira. Bi molekulen arteko desberdintasun bakarra alkino ondoko CH₂ taldeari lotutako sufre eta oxigeno atomoak dira. Sulfuroaren kasuan (**10a**), metileno talde hori oso apantailatua dago (3,65 ppm). Aldiz, eterraren kasuan (**10d**) desapantailatuagoa dago (4,67 ppm).




1. Espektroa: $^1\text{H-NMR}$ (400 MHz, CDCl_3), **10a** konposatua.



2. Espektroa: $^1\text{H-NMR}$ (400 MHz, CDCl_3), **11d** konposatua.

Erreakzio honen mekanismoa S_N2 ordezkapen nukleozalea da:




Base sendoak heteroatomoari protoia kendu ostean, negatiboki kargatuta egongo da eta gai izango da 3-bromo-1-propinoaren karbono primarioan erasotzeko. Modu honetan, bromoa askatuko da eta propargil tioeterra edo eterra sortuko da.


Alkino egokiak prestatu ondoren, beraiek erabili genituen gire lan-planaren hurrengo helburua betetzeko: 1-(2-dimetilaminoetil)-1,2,3-triazol berrien sintesia.

3.4. 1-(2-N,N-Dimetilaminoetil)-1,2,3-triazolen sintesia

Gure sintesi-planaren arabera, triazolen 2-dimetilaminoetil deribatuak prestatzeko, lehendabizi **3a-b** alkoholak sintetizatu behar ziren (**6.Eskema**). Horretarako, **10b** eta **10e** alkinoak aukeratu ziren eta beraiekin CuAAC erreakzioak egin ziren 2-azidoetanolarekin. Katalizatzaile bezala Cu(I) azetatoa aukeratu zen eta basea sodio azetatoa. Erreakzio-baldintza hauek erabiliz, **3a-b** alkoholak etekin bikainez lortu ziren. **3.Espektroan** ikusten dira **3b** molekularen ¹H-NMR seinale adierazgarrienak.




6. Eskema. 1-(2-Hidroxietil)-triazolen CuAAC sintesia.



3. Espektroa: ¹H-NMR (400 MHz, CDCl₃), **3b** konposatua


Alkoholak isolatu ondoren, 1-(2-dimetilaminoetil)-triazolak (**1a-b**) lortzeko bi urratsak aztertu genituen: a) alholaren aktibazioa mesilatoa bezala eta b) mesilatoaren ordezkapena dimetilaminarekin. Transformazio hauek, presiopeko ACE tubo batean egin ziren. Adibidez, **3b** alkoholaren mesilazioa egiteko, disolbatzaile bezala THF anhidroa erabili zen eta base bezala TEA, sorutako alkoxidoa mesil kloruroak eraso dezan. **4.Espektroan** erakusten da lortutako **2b**

mesilatoaren $^1\text{H-NMR}$ espektroa, bertan mesilo taldearen ondoko metilenoa (H5) 4.6 ppm-tara ateratzen delarik:




4. Espektroa: $^1\text{H-NMR}$ (400 MHz, CDCl_3), **2b** mesilatoa.

Mesilatoaren osaketa amaitutakoan, ACE tuboan bertan, erreakzio nahastea THF gehiagoz diluitu zen, eta mesilatoaren ordezkapena emango zuen dimetilamina klorhidratoa gehitu zen. Klorhidrato hau dimetilamina librea bihurtzeko TEA gehiago ere gehitu zen (**7.Eskema**).



7. Eskema. 1-(2-Dimetilaminoetil)-triazolen “one-pot” sintesia.

Erreakzio hau presiopeko ACE tuboan egin beharra dago dimetilamina askearen irakite puntua 7°C -koa delako, eta erreakzioa 60°C -tan burutzen denez gau oso batean zehar, honek mesilatoarekin erreakzionatu baino lehen matrazetik alde egiten du. Hau frogatua izan zen erreakzioa septum batez itxitako matraze batean eginez (**5.Espektroa**):



5. Espektra: ¹H-NMR (400 MHz, CDCl₃), 3) **2b** mesilatoa; 2). **1b** 1-(2-dimetilaminoetil)-triazola; 1) **2b** eta **1b** konposatuen erreakzio-nahaste gordina.

Aurrean esandakoaren adierazgarriak dira goiko irudietan azaltzen diren espektraok. Azpikoa, ohizko matrize batean (septum-arekin) egindako erreakzio produktu gordinari dagokio. Kasu honetan hoberen ikus daitezkeen seinaleak Ha eta Hb hidrogenoenak dira. Mesilatoaren kasuan biak 4,6 ppm inguruan bi triplete ematen dituzten, eta aminaren kasuan hauek banatzen dira bat 4,5 ppm azpitik agertuz eta bestea 2,8 ppm-tan. Kasu honetan konposatu nahastea erraz banatu daiteke silikagel zutabe kromatografiaz EtOAc/Hexano 5:1 eluitzailea erabiliz.

Azkenik, bi erreakzioak (mesilazioa eta aminazioa) “one-pot” moduan ACE tuboa erabiliz egin genituenean, **1a-b** dimetilaminoetil-triazolak garbi eta etekin onez lortu ziren.

Honenbestez, gure lanaren bigarren helburua lortuzat eman genuen eta AHULKEN konposatu kiralen “one-pot” sintesia aztertzeraz pasatu ginen.


3.5. “One-pot” N-diazotazioa/CuAAC ziklazioa: 1-karboximetil-1,2,3-triazolen sintesia

1-Karboximetil-triazol kiralak prestatzeko, lehendabizi alkino eta α -azidoazido kiralen arteko CuAAC erreakzioa aztertzea pentsatu genuen. Horretarako, aminen N-diazotazio izeneko erreakzioa erabili zen, α -aminoazido kiraletatik abiatuz (**8.Eskema**). Erreakzio hau bi erreaktibo ezberdinez egin zen. Alde batetik Triflil azida **12** erabili zen eta bestetik **13** imidazol-1-sulfonilazida. Konposatu hauen ezegonkortasuna dela eta, ez dira komertzialak eta sintetizatu egin behar dira.

Triflil azidaren kasuean **12**, *in situ* presta daiteke anhidrido triflikoa eta sodio azida hotzetan ura-diklorometano nahastean erreakzionaraziz. Horrela lortutako triflil azidaren diklorometano disoluzioa zuzenean erabil daiteke aminen N-diazotazioak egiteko.

Errektibo honekin α -aminoazidoen N-diazotazioa egiteko, Pelletierren²¹ metodoa jarraitu da **24a-b** α -aminoazido enantiopuroekin (D-fenilalanina eta D-tirosina). Horretarako, aminoazidoa eta KHCO_3 -ez osatutako ur disoluzioari $\text{CuSO}_4 \cdot 5\text{H}_2\text{O}$ katalizatzailea, eta triflil azida (1,5 balt.) gehitu ondoren, nahastea 2 orduz giro tenperaturan uzten da. Modu horretan, **11a-b** α -azidoazidoak lortzen dira. α -Azidoazidoen sorrera, ^1H NMR espektroskopiaz baieztatu zen (ikusi, **9.Espektroa** 33. Horrian). Hauek purifikatu gabe erabili ziren ondorengo CuAAC erreakzioak “one-pot” moduan eginez.


N-diazotazio erreakzioa dagozkien **11** α -azidoazidoak emtateko **8.Eskeman** adierazten da:



8. Eskema. α -Azidoester α -ordezkatuak lortzeko erreakzioa. ^{a)} Produktua ez zen isolatu eta disoluzioa “*in situ*” erabili zen hurrengo CuAAC erreakzioan.

Aurreko aminen N-diazotazio-erreakzioaren mekanismoa eta azidak emateko eta **12** triflil azidaren sorrera **9. Eskeman** biltzen dira:


²¹ Lundquist, J. T.; Pelletier, J. C. *Org. Lett.* **2001**, 3, 781.



9. Eskema. Trifilil azidaren sorrera-erreakzioa eta aminen N-diazotazio-erreakzioaren mekanismoak.

Alde batetik, **12** trifilil azidaren sorrera anhidrido triflikoa eta azida anioiaren adizio-eliminazio erreakzio baten bidez gertatzen da, sodio triflatoa altoproduktu bezala osatuz. Bestalde, aminen N-diazotazio erreakzioari dagokionez, lehendabizi Cu(II) katioia koordinatu egiten da amino taldearekin konplexu bat osatuz. Konplexu horretan nitrogenoaren nukleozaletasuna handiagoa bihurtuko litzateke eta trifilil azidaren nitrogeno elektrozalearekin erreakzionatuko luke, alkilazida eta **25** trifilil amida emanez.

α -Azidoazidoak (**11**) *in situ* kuantitatiboki sortzen zirela ikusita, “one-pot” CuAAC “click” erreakzioan erabiltzea erabaki genuen **10a** eta **10c** alkinoak erabiliz. Horretarako Sharpless-en metodoa erabili genuen disolbatzailea MeOH/H₂O nahastea izanik eta, katalizatzailea CuOAc (% 5 mol) erabiliz.




10. Eskema. 1-Karboximetil-1,2,3-triazola kiralak α -aminoazidoetatik lortzeko “one-pot” erreakzioa.

^{a)}produktua **25** triflamidarekin nahastua lortzen da.

Azpiko irudiko 6. Espektroan **4** konposatuaren triazolaren H1 protoia (7,47 ppm) oso adierazgarria da. Datu honek ziurtatzen zigun “click” erreakzioa modu egokian ematen zela eta beste seinaleak identifikatuz bermatzen genuen konposatua ondo sortzen zela. Bestalde, H6, H7


protoi bentziliko diastereotopikoak (3,5 ppm) molekula kirialaren bereizgarriak dira. Azkenik, sulfre atomoaren ondoko metileno taldeak ere aldaketa handia jasaten du **10a** alkinotik **4** triazola ematerakoan. Lehendabizikoan, 3,65 ppm-an singlete bat ematen du eta bigarreanean, 4,25 ppm-an doblete bikoitza molekularen C3 karbono estereogenikoaren eraginez.



6. Espektroa: $^1\text{H-NMR}$ (400 MHz, CDCl_3), **4** konposatua.


Hurrengo orrialdean (**4.Irudia**) **4** konposatuaren HPLC kromatograma erakusten da, kolumna kirala erabiliz egindakoa. Kromatograma hau nahaste errazemikoarekin konparatzen denean (ikusi **1. Eskema**, 12 orrialdean), argi dago “one-pot” prozedura berriarekin konposatu enantiopuroa lortzen dela.

Saponifikaziorik gabeko metodoa arrakasta handia izan da ez dagoelako inolako epimerizaziorik. Honekin “one-pot” 1-metoxikarbonilmetil-1,2,3-triazolen sintesi, azkarra, merkea eta enantiopuroa lortu dela baieztatzen da. Hala ere, ustegabeko arazoa dauka metodoa: **12** triflil azidaren erabileran sortzen den azpiproduktua **25** triflamida da. Konposatu honen NH protoien azidotasuna azido karboxilikoaren antzekoa da eta, ondorioz, ezin dira azido-base erauzketa bidez banatu. Bestalde, azido karboxiliko/triflamida nahasteak ezin dira ongi banatu zutabe kromatografia erabiliz, elkarren artean konplexu supramolekularrak osatzen dituztelako. **25** Triflamida eta **5** triazol fluoratuaren nahastea ongi nabarmentzen da ^{19}F NMR eginez (**7.Espektroa**).



	RT	Area	% Area	Height	% Height
1	15.733	79736	0.19	2570	0.27
2	17.547	41402088	99.81	948031	99.73

4. Irudia. α -Aminoazido enantiopuroak erabiliz lortutako **4** konposatuaren zutabe kiraleko HPLC kromatografia.




7. Espektra: ^{19}F -NMR (400 MHz, MeOH-d_4), **5** konposatu gordina, **25** triflamidaz kutsatua.

Triflamida azido triazolotik banatzeko asmoz froga ezberdinak eginez, sublimaketa triflamidaren banaketa partziala ematen duela ikusi zen, baina produktua oliotsua denez, ezin izan % 100a garbitu. Honekin batera, disolbatzaile koordinanteek triflamidiarekin interakzioa izango zutela proposatu genuen, hau frogatzeko eter etilikoz disolbatu zen nahastea, eta guztia disolbatu

ondoren, eter gehiago gehitu ahala hauspeakin bat sortu zela antzeman zen, hau iragazi eta ^{19}F NMR espektroa eginez triflamidaren desagerpen partziala ikusi zen, hala ere ez zen oso metodo erabilgarria bezala ikusi erabili beharreko bolumen handien gatik eta banatzeko ahalmena mugatua zelako. Honetaz aparte, zutabe eta TLC kromatografiko ezberdinak burutu ziren, baina guztietan triflamida **5** konposatuarekin nahastua lortzen zen.

Azkenik beste metodo bat saiatu zen: lurrun-bidezko arrastrea. Horretarako, **5**+**25** nahastea EtOAc kantitate minimoan disolbatu zen eta hau toluenoz diluitu ondoren, lortutako suspentsioa errotabaporean lurrundu zen toluenoaren irakite puntu altua triflamida sublimagarria eramateko esperoan.




8. Espektroa: ^{19}F -NMR (400 MHz, dis.), Goitik behera, **5** konposatu gordina (MeOH-d_4), **5** konposatua tolueno arrastrea eta gero (MeOH-d_4).

Ikusten denez triflamidaren ^{19}F seinalea -81,57 ppm tan agertzen da eta **5** konposatuarena -64,23 ppm tan. Toluenoarekin lurrunketa egin ondoren, **5** konposatua puroa dago eta ez du triflamidarik.

Purifikazioak dituen konplikatasun handi hauek direla eta, beste metodo baten beharra ikusi genuen. Kasu honetan **13** imidazol-1-sulfonilazida ren erabilera proposatu zen triflil azidaren ordez α -aminoazidoen N-azotazioa, imidazol errektibo honen azpiproduktuak basikoak direlako eta hauek azido base garbiketa batez erraz ken daitezke. Hala ere, talde basikoak dituzten aminoazidoekin arazoak egon daitezke (adibidez, triptofanoa). Kasu hauetan triflil azidaren


erabilera aproposa izango dela proposatu da triflamidaren azidotasuna dela eta produktuz banatzeko garbiketa azido basikoak nahikoa izan behar litzakelako.

